




EUSKAL HERRIA BILBON KANTARI **“zazpiak oihal batetik”**



ZAZPIAK OIHAL BATETIK

Euskal Herria Bilbon Kantari
2014ko Martxoaren 22an





Martin Ugalde Kultur Parkea
Gudarien etorbidea 8
20140 Andoain

HELBURU NAGUSIAK

- *Euskal Herria Kantuz sarea eta dinamika indartzea. Euskal Herri osoko kantu taldeen arteko harremanak sendotuz, eta elkarrekin ekimen bateratu batean parte hartuz.*
- *Bilboko kaleetan gure jarduna ezagutaraztea, eta bertako herritarrak gurekin kantatzera gonbidatzea.*

2014ko EUSKAL HERRIA KANTUZ EGUNA BILBON: “Zazpiak oihal batetik”

Euskal Herriko hiriburuen artean, Bilbon sortu da azken kantu taldea eta dinamika, eta horri helduz eta bultzatzeko asmoarekin, bertara eraman nahi ditugu Kantu Talde guztiak egun berezi hori antolatzeko.

*Zazpi herrialdeetako kantuzaleak **Bilboko Zazpi Kaleetan** jarriko ditugu kantuan, herrialde bakoitzari kale bat egokituko diogu, beren kantu esanguratsuenak abesteko. Kale horiek, baita inguruko balkoi batzuk herrialde bakoitzeko ezaugarriekin hornituko ditugu (estandarrea, banderolak, sinbologi propioa, ...).*

Kantua gure dinamikaren oinarria izanik ere, eguneko egitarauan beste motatako jardunak eskainiko ditugu: bertsoak, dantzak, kalejirak, eta abar....

AURREKARIAK

Kantatzeko zaletasuna modu eta leku ezberdinetan oso zabaldua egon bada ere, orain 15 urte ekimen berezi bat sortu zuten Baionan, horrela era antolatu batean, hilero kantuzaleek kalez kale kantuan aritzeko erabakia hartu zuten, Baionan Kantuz dinamika sortuz.

Orduetik, urtez urte herri eta hiri ezberdinetan sortu izan dira kantu taldeak, eta gaur egun ehunka kantuzale dira kalean kantatzeko ohitura horri heltzen diotenak, kale giroa alaituz, gure ondare bizia zabalduz, eta honekin batera euskararen erabilera indartuz.

2011ko urtarrilean, Euskal Herriko kantu taldeko ordezkariekin I. biltzarra antolatu genuen, eta bertatik sortu zen EUSKAL HERRIA KANTUZ sarea osatzeko asmoa. Egitasmo honen bitartez Euskal Herri osoko kantu taldeen arteko koordinazioa, informazioa, eta elkarlana kudeatzeko ardura hartu genuen.

Horren ondorioz hainbat ekimen bideratu ditugu, Kantu liburuxkak argitaratu, kantu taldeei laguntza zuzena eskaintzea, eta batez ere urtero antolatzen dugun Euskal Herria Kantuz egun bereziarekin.

Urte honetan, 2014an, Bilbon burutu nahi dugu gure egun berezi hau, EUSKAL HERRIA KANTUZ EGUNA antolatuz lelo honen baitan, “zazpiak oihal batetik”.

EGITARAUA

- ▶ **EGUERDIKO KANTUJIRA.** “Zazpiak oihal batetik” ekimena arratsaldeko 17:00etan hasiko bada ere, eguerdiko 12:30ean kantujira bat egiteko aukera eskainiko dugu, ez da beharrezkoa bertaratzea, borondatezko kontu bat izango da. Bilboko zabalgunetik, erdialdetik abiatuko gara, IRUÑA kafetegi aurrean kokatuta dagoen parketik. Ondoren Bilboko Alde Zaharrera joateko.
- ▶ **BAZKARIA.** Eguerdian Bilbon bazkaldu nahi dutenentzako, aukera ezberdinak eskainiko ditugu jatetxe-elkarte batzuetan (saiatuko gara prezio merkean lortzea). Aurrerago, jatetxe horien zerrenda eta lekua gordetzeko telefonoak bidaliko dizuegu.
- ▶ **Alde zaharreko PLAZA BARRIAN** kokatuko da gure hasiera eta amaiera. Bazkal ondoren ere, bertan musika jarri eta kantu-dantzan aritzeko aukera izango dugu.
- ▶ **17:00etan, PLAZA BARRIAN ELKARRETARATZEA.** Bertan elkartuko gara kantuzale eta musikari guztiak. “Zazpiak oihal batetik” ekimena hasi bitartean hainbat kantu eta dantza egiteko aukera izango dugu.
- ▶ **17:30ean. ZAZPIAK OIHAL BATETIK** Ekimena.
- ▶ **20:00etan, PLAZA BARRIAN** “Zazpiak oihal batetik” ekimenaren amaiera. Kantuak eta dantzak.

ZAZPI HERRIALDEETAKO KANTU TALDEAK BILBOKO ZAZPI KALEETAN

BILBOKO PLAZA BARRIA



-  ZAMUDIOKO ATEA (NAFARROA)
-  SOMERA KALEA (LAPURDI)
-  HARATEGI-ZAHARRA KALEA (ARABA)
-  BARRENKALE BARREN KALEA (BAXENAFARROA)
-  SANTA MARIA KALEA (GIPUZKOA)
-  BIDEBARRIETA KALEA (XIBERUA)
-  POSTA KALEA (BIZKAIA)



BILBOKO PLAZA BARRIA

EUSKAL HERRIA KANTUZ SAIOAREN EGITARAUUA:

“ZAZPIAK OIHAL BATETIK”

12:30 – 14:00 min. KANTUJIRA BILBOKO ERDIALDETIK ALDE ZAHARRERA

- Hasiera Iruña kafetegi aurreko parketik abiatuko dugu.
- Bilbo kantari taldearen eskutik gidatutako kantujira.
- KALEJIRAK egiteko Bilboko musikariak joango dira (txistulariak, dultzaineroak, trikitilariak).

17:00 – 17:25 min. “ZAZPIAK OIHAL BATETIK” EKIMENAREN HASIERA

- PLAZA BARRIAN. Kantuzaleen topalekua izango da. Bertan, kantuak eta dantzak tartekatuko ditugu giro paregabea sortuz.
- 2 abesti kantatuko ditugu kalejiran hasi baino lehen.
- KANTUA: “Baionatik Bilbora”
- KANTUA: “Zazpiak oihal batetik”
 - Kalejiran abiatuko dira kantuzale guztiak → Zamudioko Atea. .

17:30 – 17:45 min. NAFARROA Kantuz ZAMUDIOKO ATEA

- KALEJIRA: Plaza Barria → Zamudioko Atea. Nafarroako kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA: Balkoi batetik Nafarroako bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3): Nafarroako 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Nafar estandartearekin kalejira 2. kalera.
- Abestietan oinarrizko musika erabiliz gero, NAFARROAtik ekarritakoak erabiliko dira.



17:50 – 18:05 min. LAPURDI Kantuz SOMERA KALEA

- KALEJIRA. Zamudioko atetik → Somera kalea, lapurtarren eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA: Balkoi batetik lapurdiko bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3): Lapurdiko 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Lapurdiko estandartearekin kalejira 3. kalera.
- Abesteko musika, IPARRALDEtik ekarritakoak erabiliko dira.



18:10 – 18:25 min. ARABA Kantuz HARATEGI-ZAHARRA KALEA

- KALEJIRA. Somera kaletik → Harategi-zaharra kalea, arabako kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA. Balkoi batetik arabako bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3): Arabako 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Arabako estandartearekin kalejira 4. kalera.
- Abesteko musika, ARABAtik ekarritakoak erabiliko dira.



18:30 – 18:45 min BAXENAFARROA Kantuz BARRENKALE BARRENA

- KALEJIRA. Harategi-zaharretik → Barrenakale barrena, baxenafar kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA. Balkoi batetik baxenafarroako bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3). Baxenafarroako 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Baxenafarroako estandartearekin kalejira 5. kalera
- Abesteko musika, IPARRALDETIK ekarritakoak erabiliko dira.



18:50 – 19:05 min. GIPUZKOA Kantuz SANTA MARIA KALEA

- KALEJIRA. Barrenkale barrenetik → Santa Maria kalea., gipuzkoar kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA. Balkoi batetik gipuzkoako bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3). Gipuzkoako 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Gipuzkoako estandartearekin kalejira 6. kalera.
- Abesteko musika, GIPUZKOAtik ekarritakoak erabiliko dira.



19:10 – 19:25 min. XIBEROA Kantuz BIDEBARRIETA KALEA

- KALEJIRA. Santa Maria kaletik → Bidebarrieta kalea, xiberoako kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA. Balkoi batetik xiberoako bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3). Xiberoako 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Xiberoako estandartearekin kalejira 7. kalera.
- Abesteko musika, IPARRALDETIK ekarritakoak erabiliko dira.



19:30 – 19:45 min. BIZKAIA Kantuz POSTA KALEA

- KALEJIRA. Bidebarrieta kaletik → Posta kalea, bizkaitar kantuzaleen eskutik.
- BERTSOLARIAREN AGURRA. Balkoi batetik bizkaiko bertsolariaren agurra.
- KANTUAK (3). Bizkaiko 3 kantu esanguratsuenak.
- Amaieran, Bizkaiko eta beste herrialdeetako estandarteekin Plaza Barrira abiatuko gara.
- Abesteko musika, BIZKAItik ekarritakoak erabiliko dira.



19:50 – 20:15 min. “zazpiak oihal batetik” ekimenaren AMAIERA Plaza Barrian

- KALEJIRA. Posta kaletik → Plaza Barrira.
- BERTSOLARIEN AGURRA. Herralde ezberdinetako bertsolariek koplak banarekin agurtuko dute kantuzale guztiak, hauek musikarekin kantuz erantzungo dute.
- KANTUAK: “Zenbat gara” “Xalbadorren heriotzean” “Txoriak txori”.
- DANTZA. Guztiak plazan dantzatzeko dantza batekin amaituko dugu KANTUJIRA.



BILBOKO ALDE ZAHARRA
ZAZPI KALEAK



ALDE ZAHARREKO PLAZA BARRIA

